

# ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA ELGETAN

## 9.SAIOA

DATA: 2023-02-15
PARTAIDEAK: <ul style="list-style-type: none"><li>- Herritarrak: 8 parte hartzaile</li><li>- Udaletik: Ibai Larrañaga (Ingurumen zinegotzia), Iraitz Lazkano (alkatea)</li><li>- Goiener: Oier Etxeberria</li><li>- Emun: Uxune Alustiza</li></ul>

---

### **ITSULAPIKO BIRTUALA**

Oierrek Itsulapiko birtuala zer den azaldu du. Gaztelaniaz Bateria digital deitua, soberakinak eurotan urteko beste faktura batzuetan deskontatzeko aukera ematen du.

### **AURKEZPEN EKITALDIA**

Martxoaren 15ean, asteazkena, egingo dugu jendaurreko aurkezpena. Bergarakoei eskatuko diegu euren aurkezpenean erabilitako PPTa, gurea osatzeko.

Datu sinpleak eman behar ditugula aipatu da eta azpimarratu behar dela komunitatea bera sortzearen garrantzia, herrirako dituen onurak, onura kolektiboak eta abar.

Proiektuari dagokionez, datu orokorrak baina zehatzak ematea hobetsi da, nahiz eta badakigun gero datuak aldatuko direla jendearen datu errealekin:

- Zenbat Kw-ko instalazioa izango den
- Zenbat jende/komertzio behar den
- Zenbat euro jarri behar duen bakoitzak
- Ze aurrezpen izango duen bakoitzak.

Enaitzek Ixoturen logoa, letra tipoa, koloreak, iruditxoak... erakutsi dizkigu. Koldo Izagirrek egin du eta komunikazioko lantaldekoen ekarpenak ere sartu ditu. Aurkezpen ekitaldian egingo dugu izenaren eta logoaren aurkezpena. Ordura arte ez dugu publiko egingo.

Aurkezpen ekitaldirako esku orri bat prestatuko dugu, oinarrizko informazioarekin:

- EBKren helburuak
- Bazkidetza kostua
- Bazkidetza nola egin azalpenak eta datuak idazteko aukera
- Ixoturen kontaktu datuak
- ...

Aurkezpen ekitaldiaren komunikazio kanpaina martxoaren 1etik 15era egingo dugu, hurrengo saioaren ondoren (martxoaren 1ean elkartuko gara 10.saioan). Kanpaina, jendeari eskatuko diegu faktura batekin etortzeko ekitaldira.

## **LANTALDE JURIDIKO - ADMINISTRATIBOA**

IXOTU izena ere libre dago Espainian. Orain, Eusko Jaurlaritzan egin behar da libre dagoen zertifikatu eskaera.

Helburu hau jarri dugu: martxoaren 15eko ekitaldirako kooperatiba erregistratuta edukitzea.

Horretarako, pauso hauek falta dira:

- Estatutuak errematatu: Bergarakoenak erabili.
- Kontu korrontea sortu. Banketxera joan eta egoera azalduta, eurek esango digute nola egiten den tramitea.
- Udalaren 4000€-ko ekarpena sartu, bere izenean eta bazkide laguntzaile figuraren kontzeptuan. 1000€ derrigorrezko kapital ekarpena izango da eta 3000€ borondatezko ekarpena.
- Kontseilu Errektoreko kideak izendatu, izen-abizenekin. Bazkide laguntzaileak bi izango dira, udala eta Fagor (Aritz Otxandianori galdetu) eta beste bostak bazkide erabiltzaileak, langilerik ez dagoelako.
- Eratze batzarra egin. Edo, behintzat, eratze akta bat idatzi. Eredua badauka Goienerekin.
- Notaritza batekin harremanetan jarri, azaltzeko ze tramite dagoen egiteko. Gertukoa izan dadila, egun batean Keko kide guztiak joan behar direlako sinatzera.

Aurrera begirako hausnarketa egiteko aprobetxatu dugu: Goiener-Emun prozesua bukatuko da 2 saio barru. Kontseilu errektorea izango da talde eragilea? Aparte talde eragile bat egongo da, eta kontseilu errektorea sinadurak eta funtzio zehatzak egiteko bakarrik erabili? Lantaldeak egongo dira? Pentsatzen joan beharraz hitz egin dugu.

## **ENERGIA LANTALDEA**

Lantaldearen bileran hitz egindakoak azaldu ditu Robertok. Zaila egin zaie zenbaki batzuk jartzea tauletan. Gestoria bati kudeaketaren kostua galdetu diote eta badakigu 220€ izango litzatekeela hilean, 100 bazkidetik beherako kooperatibaren kasuan.

Aurkezpen ekitaldirako zenbaki zehatzak behar direnez, hau erabaki da: instalazioan parte hartzen dutenek 500w-ko paketeak izango dituzte aukeran:

- Pakete bat: 500w
- Bi pakete: 1Kw
- Hiru pakete: 1,5Kw

40Kw-ko instalazioa daukagula kontuan izanda, aurkezpen ekitaldira eraman behar ditugu zenbaki batzuk, proiektua bideragarri izan dadin zenbat jende behar den pakete batekin, zenbat bi paketerekin eta zenbat hirurekin.

### **Aholkularitza zerbitzua:**

40Kw-ko instalazioaren proiektua bertan behera geratzeko aukeraz aritu gara hizketan, nahikoa jende batuko ez balitz, adibidez. Oierrek hainbat adibide jarri ditu ikusteko aholkularitza zerbitzuarekin zenbat jenderengana irits daitekeen, zenbateko aurrezpena izan dezakeen jendeak... eta hori fakturen eta merkatuen lanketarekin bakarrik.

Berrito aipatu da ondoko herrietako EBKekin elkarlanean zerbitzu hau martxan jartzeko aukera, Elorrio eta Bergararekin. Euren ere eratze fasean daude orain. Lan boluntarioarekin egin dute Eskoriatzan, adibidez.

Goienerek badauka aholkularitza zerbitzuaren aukeren dokumentu bat, bidaliko digu Oierrek.

### **KOMUNIKAZIO LANTALDEA**

Elkarte eta eragileen errondan, jubilatuekin otsailaren 16an gaude geratuta. PNVrekin pleno eguna aprobetxatzen saiatuko gara, otsailaren 28an.

Dokumentazioa gordetzeko plataformaren batean karpeta bat martxan jartzeaz aritu gara: aktak direla, estatutuak direla, PPTak direla, logo eta irudiaren lanketa, proiektuen excel eta bestelako materiala...

Email helbideaz eta webguneaz aritu gara. Domeinu bat eta email bat urtebetez Goienerek doan eskaintzen du. Emaila orain martxan daukagu, pentsatu beharko dugu geure propioa sortzea. Webgunerako domeinua eta hosting-a erosi ala ez ere aztertu behar da, urteko 400€ inguruko kostua duelako. Beharbada, aurrerago egiteko utzi behar da webgunearena, bolumen handixeagoa dugunerako.

### **ITXIERA**

Hurrengo saioa martxoaren 1ean, asteazkena, 18:30etan izango da.

#### **Etxeko lanak:**

Komunikazioa:

- Eragileen erronda bukatu.
- Aurkezpen ekitaldia prestatzen hasi, nork aurkeztu, zer...
- Bergarako EBKkoei aurkezpen ekitaldiko PPTa eskatu (Emun).
- Esku orria prestatzen hasi.
- Ekitaldiaren komunikazio kanpaina prestatu, hurrengo saioan aurkezteko.

Juridikoa

- Estatutuak errematatu.
- Kontu korrontea sortu eta udalaren dirua sartu.
- Kontseilu errektorerako izen-abizenen proposamena prestatu.
- Aritz Otxandianorekin egon, Fagorreko nor egongo den KEn.
- Notaritza batekin harremanetan jarri, zer/noiz egin planifikatzeko.
- Eratze aktaren eredia bidali (Goienere)

Energia

- Datu zehatzak prestatu, ekarri proposamen bat hurrengo saiora:
  - o Excelean irizpide batzuk aplikatu: orientazio bat aukeratu...
  - o Zenbat jende behar den pakete batekin (500w), zenbat bi paketerekin (1Kw) eta zenbat hirurekin (1,5Kw)
- Aholkularitza zerbitzuaren antolaketaren eredia bidali (Goienere).